



MANIFESTU FEMINISTA 2021eko EKAINAREN 26a

AGENDA FEMINISTAREN ALDE, TRANS LEGEEN KONTRA.

Emakume gisa ditugun eskubideekiko bizi dugun atzerakada errealitate ukaezina da tamalez. Emakumeon aurkako, eta bereziki, mugimendu feministaren aurkako patriarkatuaren eta kapitalismo neoliberalaren arteko aliantza bortitzak eraginda, egoera eutsiezin eta kriminal batera iristen ari gara; bai gure herrian, baita mundu osoan ere. Horrek gure aldarrikapen guztiak irauli ditu, gure ordenamendu juridiko guztian barneratuz.

Gure azterketa argia da: gure aliatuak zirela esaten zutenak eta "historiako gobernurik feministena" direla esaten dutenak, azken 300 urteetan zehar borrokatu den agenda feministaren aurka egungo legeak eraldatu nahian ari dira. Gobernuko lehendakaritzaren gelditasun konplizearen aurrean, Berdintasun Ministerioak mugimendu feminista baztertu eta mespretxatu du, emakumeon aurkako legeak sustatuz. Gainera, kolore politikoak alde batera utzita, autonomia-erkidegoetako parlamentuak, legedia aldatzeko dituzten lege eskumenez baliatuz, atzeko ate gisa erabiliak izaten ari dira. Honek gure babesgabetasuna areagotu eta emakumeon kontrako indarkeriaren, sexu eta ugalketa-eskubideen eta diskriminazio material eta sinbolikoaren arloetan atzerakada sendotzea suposatzen du, baita haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideei dagokienez ere.

Hau guztia dela eta, mugimendu feministak kaleak hartu ditu gaur gobernu zentralari eta autonomikoei ondorengoa exijitzeko:

AGENDA FEMINISTA BERE OSOTASUNEAN BETETZEA ETA TRANS LEGEAK GELDIARAZI ETA INDARGABETZEA

Bai, pluralean, zeren eta trans legeak, "Sexua" kategoria juridikoaren ordez "genero-identitatea" kategoria ezartzen duen araudi osoa jasotzen baitu. Araudi hori parlamentuan sartzear dauden Trans Legea, LGTBI Legea eta Zerolo Legea baliokideekin hedatu nahi da. Honek, adierazpen-askatasunerako oinarrizko eskubidea baliatuz, emakume, ama edo alua hitzen erabilera defendatzen duten pertsonen kriminalizazioa dakar, baita izenordainen erabilera "okerragatik" ere, 150.000 eurorainoko isunak ezarriz. Adierazpen askatasuna beste leku batzuetan hertsatua izan da jada. Eskozian, esaterako, duela bi aste emakume sufragisten lokarri bat Twitterren argitaratze hutsagatik, Marion Millarren aurkako atxiloketaren eta honen epaiketaren hasieraren lekuko izan ginen. Berriz diogu, emakume sufragistena izanagatik.

Ildo horretan, arau hauen indargabetzea eskatzen dugu, edo behintzat emakumeon eta haurren eskubideen aurka egiten duten zatiena. Hala nola, Rhodes Legea (haurrak indarkeriaren aurka babesten dituen), duela gutxi onartu dena, bai eta Celáa Legearen zenbait xedapenek ere (hezkuntzari dagokionez), nahasmena sortzen baitute BERDINTASUNEAN hezteko derrigortasunari dagokionez, haren esanahia "dibertsitate" terminoetan desitxuratu gabe, gertatzen ari den bezala.

Gainera, trans araudi autonomikoa indargabetzea eskatzen dugu, besteak beste, genero-autodeterminazioari buruzko 15 legek, 14 hezkuntza-protokolok eta 15 osasun-protokolok osatua. Araudi horri esker, sexuaren autodeterminazio-eskubidea aitortzen duen Estatuko lege bat egon ez arren, hezkuntza-politika sexistak ezarri ahal dira, sexuan oinarritutako emakumeon eskubideak urratzen dira (gizonek gure espazioetara sartzeko aukera izan dezaten eta estatistikei kalte egin diezaieten) eta haurren hormonazio indiskriminatua errazten da. Hori guztia, nahiz eta lege horiek onartu zituzten gure inguruko herrialdeak (Erresuma Batua, Suedia edo Finlandia, esaterako) atzera egiten ari diren eta pubertaroaren blokeatzaileak erabiltzea debekatzen ari diren ondorio atzeraezin eta kaltegarriak dituztelako.

Hitz batez, salatzen dugu eta sumindu egiten gara bortxatzaileak eta hiltzaileak emakumeen espetxeetan sartzeko trans araudia erabiltzeagatik. Ezin dugu gaur hemen aipatu gabe utzi Vanesa Santanaren hilketak Fuerteventuran, Jonathan Robaina bortxatzaile eta hiltzailearen eskutan. Horrek epaiketaren lehen egunean (Kanarietako Parlamentuan Trans Legea aho batez onartu eta hiru egun eskasera) bere burua emakume gisa autodeterminatu zuen. Forentseek, araudi autonomikoa urratuz, genero-disforiarik zegoenik ukatu zuten. Beraz, hauen esku-hartzeak bortxatzaile eta feminizida bat emakumeen modulu batera lekualdatzea eragotzi zuen. Berdintasun Ministerioak eta Gobernuak gainerako kideek hainbatetan ukatu dute trans legeek hori ahalbidetuko zutenik, "#EstoNoIbaAPasar" esaten zuten, baina gertatu egin da.

EGOERA HORRETAN, HERRITARREN ERDIAREN ESKUBIDEEN AURKA ERAKUNDEETATIK ZUZENDUTAKO ERASOALDIAREN AURREAN, ETA GOBERNUAREN AITZAKIEN AURREAN, #26J HONETAN, MUGIMENDU FEMINISTAK DUINTASUNEZ BETE DITU KALEAK, PUBLIKOKI ESKATZEKO:

→ **GENERO INDARKERIAREN AURKAKO LEGE INTEGRALAREN HEDAPENA**, BEHARREZKO ONDORIO GUZTIEKIN, BABES NEURRI ETA FINANTZAKETA EGOKIAREKIN, BORTIZKERIA MATXISTAREN AURKA ERAGINKORTASUNEZ BORROKATZEKO #ContraTerrorismomachista #NiUnaMás #NiUnaMenos #VivasNosQueremos #ContraLaViolenciaMachista #ContraLaViolenciaVicaria

→ **PROSTITUZIOAREN LEGE ABOLIZIONISTA BATEN ONARPENA**, DIRUAREN TRUKE EMAKUMEEN GAINENKO SEXU-TRUKE ORO DEBEKATZEN DUENA: GIZARTE DEMOKRATIKO BATEN LEGE DUINA, ETA EZ "EMAKUME SALEROSKETA LEGEA", LASTER KONGRESUAN EZTABAIDATUKO DENA ETA SEXU-ESPLOTAZIOAREN JAZARPENAREN SIMULAKRO BAT BESTERIK EZ DENA. #LeyAbolicionistaYa #ContraElSistemaProstitucional #AboliciónProstitución #AboliciónPornografía #ProstituciónEsclavitud #NiSexoNiTrabajo #LaViolaciónNoEsFicción

→ **BESTE HERRIALDE BATZUETAKO EMAKUME POBRETUEN UGALKETA-USTIATEGITIK JAIOTAKO HAURRAK ESPAINIAN ERREGISTRATZEA AHALBIDETZEN DUEN JUSTIZIA MINISTERIOAREN INSTRUKZIOA INDARGABETZEA.**

#STOPVientresAlquiler #STOPTRAficodebebés #STOPTRAficodeóvulos #NoSomosVasijas
#NoALaUstiapenaUgalketarako

→ **EMAKUMEEN EZABATZEA AHALBIDETZEN DUTEN ETA EMAKUME, HAUR, PERTSONA HOMOSEXUAL ETA GENERO-DISFORIA JASATEN DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK SUNTSITZEN DITUZTEN "TRANS" LEGEAK IZAPIDETZEARI UZTEA, QUEER AGENDA GURE ORDENAMENDU JURIDIKOAN SARTZEN DUTEN ARTIKULU GUZTIAK INDARGABETUZ.**

#NoLeyesTrans #NoAutoIDGénero #SexoNoEsGénero #LeyesTransSonMisoginia
#SerMujerNoEsUnSentimendua #NoALaHormonaciónyLaMutilaciónDeMenores
#LaInfanciaNoSeToca #StopModasCriminales

Eskakizun horiei gehitu behar diogu, halaber, KOMUNIKABIDE PUBLIKOETAN **FEMINISTEN ETA HAINBAT ADITUREN AHOTS KRITIKOAK AGERTZEA ERAGOZTEN DUEN "ISILTASUN ITUNA"-REN SALAKETA.** GURE ESKUBIDEAK URRATZEN DITUEN ERASO HONEN AURREAN, KOMUNIKABIDEAK ISILDU EGITEN GAITUZTE, **QUEER AGENDAREN PROPAGANDA ERRAZTUZ,** ZEINA LOBBY FARMAZEUTIKOEN ETA NAZIOARTEKO KORPORAZIOEN DIRUAZ FINANTZATUA DAGOEN.

Emakumeak, lankideak, ahizpak, feminismoa martxan dago eta historiak erakutsi digu borrokak balio duela eta ezinbestekoa dela. Lan Apelazioko Auzitegiak Maya Forstaterren alde emandako epaia ezagutzean, duela gutxi berriro egiaztatu dugu hori, Erresuma Batuko Garapen Globalerako Zentrotik kaleratu eta urte eta erdira, genero-autodeterminazioak emakumeen eskubideetan dituen ondorioei buruz txiokatu eta idazteagatik.

#26J HONETAN

MUGIMENDU FEMINISTAK BERE EHUN URTEKO AHOTSA GORATU DU, HONAKO HAU ALDARRIKATZEKO:

#NoNosCallarán

#NoNosBorrarán

#NoPasarán

ELKARREKIN GARAEZINAK GARELAKO ETA ASKATASUNA LORTU ARTE EZ GARELAKO GELDITUKO:

GORA EMAKUMEON BORROKA!

GORA BORROKA FEMINISTA!